



KULTUR ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN ORDENANTZA

2010

Etxarri-Aranazko Udalak, bere aurrekontuen mugen barnean eta Kultur Zerbitzuaren bitartez, dirulaguntzak emanen dizkie kultur entitateei, oinarri hauei jarraikiz:

O I N A R R I A K

1. Xedea:

Kultur entitateei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea da deialdi honen xedea, helburua delarik herritarrek beren herrian parte hartzera bultzatu, bizi- kalitatea hobetu, eta heziketa, arte eta kultur eta gizarte eta kultur arloko ihardueren bidez jakintza eta kultur garapena suspertuko dituzten ekintzak eta iharduerak sustatu eta laguntzea.

2. Eremua.

2.1. Aurreko oinarriak aipatzen dituen dirulaguntzek arlo hauetako programak izanen dituzte xede:

- a) Heziketa iharduerak, haien helburua biztanleriaren edozein sektoreren arautu gabeko hezkuntza bada.
- b) Arte eta kultur arloko iharduerak: antzerkia, musika, dantza, zinema, bideoa, literatura, arte plastikoak, folklorea eta antzekoak.
- c) Gizarte eta kultur arloko iharduerak, haien helburua herritarren sustapena bada.
- d) Herriko arte eta kultur ondarearen babespenaren aldeko iharduerak.

2.2. Iharduerak, dirulaguntza jaso ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Herritar guztiengana zabalik egotea, hau da, bazterkeriarik ez eragitea sexua, arraza, hizkuntza, ideologia, baldintza sozioekonomikoak, ea. direla eta.
- b) Herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen librea eta garapen pertsonala sustatzea.
- c) Adierazpenaren, sormenaren, partaidetzaren, zentzu kritikoaren eta erantzukizunaren garapena bultzatzea.
- d) Biztanleriaren zer sektoretarako programatu diren, haren edo haien beharrei erantzutea.
- e) Hezkuntzaren eta/edo gizarte eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea.
- f) Hemengo kultura bultzatzea.
- g) Udalaren beste laguntza-lerro batean sarturik ez egotea.
- h) Urteko programazio baten osagarri izatea.



3. Aurkezpen epea eta tokia.

Eskabideak Udaleko erregistroan aurkeztuko dira maiatzaren 19ra arte (hau barne).

Kontusail bat geldituko da urtean barrena aurkezten diren eskarietarako.

4. Dokumentazioa.

Eskarietan dokumentazio hau aurkeztuko da:

- a) Eredu ofizialaren arabeko eskabidea.
- b) Talde eskatzailearen gaineko datu jakingarriak eta 2010eko programa (erasten den ereduaren ariora).

5. Balorazioa.

5.1. Kultur Batzordeak aztertuko ditu aurkezturiko eskariak eta dirulaguntzak emateko behar den proposamena eramanen du Etxarri-Aranazko Udalaren osoko bilkurara. Eskariak aurkezteko epea ahitzen denetik, batzorde horrek hogeita hamar egun izanen ditu bere proposamena egiteko.

5.2. Dirulaguntzak emateko batez ere baloratuko da:

- a) Ihardueran parte hartzen dutenen kopurua.
- b) Iharduerak zenbat egun irauten duen.
- c) Helburuak, metodologia eta plangintza zehaztea.
- d) Iharduerak hezkuntzaren eta/edo gizarte eta kulturaren aldetik duen oihartzuna.
- e) Iharduerak elkarte eskatzailearen xede berekiekin duen adostasuna.
- f) Iharduerak aldizkakotasuna izatea.
- g) Elkartearen begiraleek eta arduradunek gizarte eta kultur arloko sustapenean eta beste kultur gaietan hartzen duten prestakuntza.
- h) Euskal kultura bultzatzea.

6. Ebazpena.

6.1. Eskarien ebazpena Etxarri-Aranazko Udalak egingen du, osoko bilkuran, Batzorde ebaluatzailearen proposamenari begiraturik.

6.2. Eskatzaileei deialdiaren ebazpenaren berri emanen zaie, baita lagunduko diren ihardueren berri ere.

6.3. Dirulaguntzek elkarte eskatzailearen iharduera edo programen kostuak sorrarazitako defizitaren atal bat arintzeko helburua dutela ulertuko da.

6.4. Dirulaguntzen onuradunek haien % 60 hartuko dute dirulaguntza onartzeko ebazpena jakinarazten den unean. Gainerako % 40, berriz, egindako ihardueren gaineko oroit-idazkiaren balorazioa eginda.

6.5. Dirulaguntzaren zenbatekoa Etxarri-Aranazko Udalaren aurrekontuetan xede horrekin berarekin dagoen diru kopuruak baldintzapetuko du beti ere.



7. Betebeharrak.

7.1. Elkarte onuradunek betebeharrak izanen dituzte:

- a) Diruz lagundutako programetan edozein gorabehera gertatuz gero, haren berri ematea gertatzen den unean berean.
- b) Kultur Zerbitzuko teknikarien ebaluazio lanak onartu eta erraztea.
- c) Diruz lagundutako iharduera eta programen publizitatean Etxarri-Aranazko Udalaren laguntza agertu behar da.
- d) Diruz lagundutako iharduera eta programen publizitatea gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko da.
- e) Egindako ihardueren oroit-idazkia aurkeztea Udaleko erregistroan, azaroaren 15etik 30era arte (hau barne), emandako dirulaguntzaren erabilera frogatzeko (erasten den ereduaren ariora).

7.2. Dirulaguntzaren gastua frogatzeko, egindako eta diruz lagundutako ihardueren gastuen jatorrizko fakturen fotokopiak aurkeztuko dira, eta haietan agertuko den zenbatekoa emandako dirulaguntzaren diru kopuru bera izanen da. Orobat, fakturretan hau zehaztuko da: ordaintzen duen entitatea, gastuaren eguna, kontzeptua, zenbatekoa eta enpresaren izena (N.A.N. edo I.F.Z.), zeilua eta faktura-emailearen sinadura.

7.3. Kultur Zerbitzuak jatorrizko fakturak aurkeztea eskatu ahal izanen du, frogapenak egiteko.

8. Ez betetzea.

Deialdi honetako oinarrietan ezarritakoa ez betetzeak, datuak faltsutzeak, edo, dirulaguntza zein xedetarako eman zen, horien funtsezko aldaketak, dirulaguntzaren galera ekarriko du, eta jaso diren zenbatekoak itzuli beharra ere bai. Halaber, xede berarekin edo bertsuarekin gero beste eskaririk egiten bada, ez da onartuko.

Etxarri-Aranatzen, bi mila eta hamarreko apirilaren 15ean.

Maidor Gofñi Errazkin

Alkatea